



SAILBURUAREN HITZAK, “EREMU JUDIZIALEKO JAZARPENAREN ERREALITATEA” JARDUNALDIAN

**(Bikaiko Abokatuen Elkargoa – Bilbao)
2019-05-24**

Juan Ignacio Marcos Behatokiko koordinatzaile jauna; Carlos Fuentenebro Bizkaiko Abokatuen Elkargoko dekanoa jauna. Jaun-andreak, egun on guztioi.

Plazera da ere zuokin guztiokin elkartzea.

Beti onartzen dut, atsegin handiz, antolatzen dituzuen jardunaldietan parte hartzeko gonbita. Legegintzaldiaren hirugarren urtea da, eta zuokin guztiokin elkartzen naizen hirugarren aldia.

Diskriminazioa eta Jazarpen Moralaren Euskal Behatokiak hausnartzeko proposatzen dituen gaiak beti dira egokiak eta interes handikoak.

Behatokiak egiten duen ohiko jarduera garrantzitsuaz gainera, jardunaldi horiek une egokia dira jarduera horren alderdietakoren batean sakontzeko.

Aurtengo urterako, “Eremu judizialeko jazarpenaren errealitatea” hautatu dute, eta ziur nago jardunaldia arrakastatsua izango dela, parte-hartzaile eta profesional handi eta adituen taldea eta hitzaldi nagusiaren eta mahaien edukia aintzat hartuta.

Niretzat interes bikoitza du, gainera: gaia bera delako interesgarria, eta Eusko Jaurlaritzako Justiziako arduraduna naizelako.

Lan-eremuko jazarpen- eta diskriminazio-kasuek auzitegietan amaitu ohi dute, eta epaileek zehaztu behar izaten dute egitaterik dagoen ala ez eta horren eragina.

Ez dut jardunaldian planteatzen diren gaietan sakonduko; izan ere, hizlariak ni baino trebatuago daude horiek aztertzeko.

Protokoloen beharra eta jazarpenaren errealitate judizialaren azterlana egoera hobeto ulertzen lagunduko digute.

Salinas Auzitegi Goreneko lan-arloko Salako magistratuak emango duen hitzaldi nagusiaren izenburua oso iradokitzailea suertatzen zait; izan ere, jazarpen-kasuetan, lan-arriskuen prebentzioaren eginkizuna aztertzea iradokitzen du.

Egoera behar bezala erakusten duen abidide gisa, pasa den maiatzaren 6ko Konstituzio Auzitegiaren autoa aipatuko dut. Autoa funtzionario batek bizi izandako jazarpen-

egoera bati buruzkoa da; luzaroan utzi zen funtzionarioa eginkizunik gabe, eta ez zitzaion lan-bileretarako deitzen, nahiz eta bere lankideak joaten ziren.

Auzitegiak egoera hori laneko jazarpen-egoera zela adierazi zuen, eta pertsonen funtsezko eskubideei, osotasun fisikoari eta osotasun moralari erasotzen ziela, bai eta duintasunari ere.

Hala ere, indarrean dagoen lan-legeriak jarraitzen du laneko jazarpen-jokabidea zein den zehaztu gabe, hura diskriminatzailea bada izan ezik.

Hala ere, jazarpenak jarraitu du auzitegietako epai askoren xede izaten.

Zehazki gaurko jardunaldirako aurreikusitako mahaietan, bi lan garrantzitsu aurkeztuko dira:

Alde batetik, jazarpenak 1.000 epai baino gehiagotan izan duen tratamenduari buruz Euskal Behatokiak egin duen azterlanaren emaitzak.

Eta, bestetik, enpresek egoera-mota horren aurrean nola jardun jakiteko Behatokiak dekalogo eta prozedura batean laburtu duen lana.

Jurisprudentiaren azterlanean, langileek planteatzen dituzten jazarpenaren inguruko demandetan epaileek eta auzitegiek hartzen duten onarpen ezerako jarrera agerian geratzen da.

Hori izan daiteke jazarpena termino argi eta objektiboetan zehazten duen legeriarik ez dagoelako, baina baita jazarpena zer den ezagutzen ez delako eta enpresetan jokabide-mota horrekiko prebentzio-kulturarik ez dagoelako.

Egungo Europako Gutun Sozialaren 26. artikuluan (1996an berrikusi zen), lanean duintasunerako eskubidea babestu behar dela ezarri zen.

Horretarako, alde batetik, lantokian edo lanarekin zerikusia duenean edozein langileren aurka behin eta berriz egiten diren egintza gaitzesgarri, kontrako eta iraingarrien inguruko sentsibilizazioa, informazioa eta prebentzioa sustatzea.

Eta, bestetik, pertsonak jokabide horien aurrean babesteko neurri egokiak hartzea.

Europako Gutuneko agindu horrek laneko jazarpena zer den termino orokorretan zehazten du, baina agintari publikoei bereziki zuzentzen dien agindu nagusia da pertsonak jokabide gorrotagarri horren aurrean prebenitu eta babestea eta, beraz, ez gertatzeko esku hartzea.

Hori da, hain zuzen ere, protokoloen helburua.

Zehazki, kontrako jokabideen edo jokabide desegokien lehen adierazpenetan, eraginpean dauden pertsonak eta enpresak berak ere tresna egokiak izatea, lan-harremanetan oinarritzko eskubidearen urraketarik gerta ez dadin.

Dela egintzaren bidez, dela omisioaren bidez, jazarpenaren aurrean edo, oro har, tratu txarraren aurrean babesten gaituen funtsezko eskubidea.

Protokoloaren xedea da, beraz, jokabide hori prebenitzea. Baina ez da erabat horrela; izan ere, prebentzioak osasunari kalte egin aurretik hasi behar du.

Beraz, enpresek lanean dauden jazarpen-arriskuen faktoreak identifikatu eta balioetsi behar dituzte eta, horretarako, arrisku psikosozialak ebaluatu.

Nahiz eta protokoloak prebentzioa ere xede izan, hura arrisku-egoera detektatzean baino ez da aktibatzen.

Xedea da esku hartzea, harekin amaitzeko eta ondorioak eraginkortasunez eta berehala neutralizatzeko, larritasun-mailaren arabera proportzioan eta hura lortzeko baliabide egokienekin.

Protokoloaren helburuak honako hau izan behar du: hori lortzea eta jarduteko modua bidezkoena eta proportzionalena izatea desegokitzat jotzen den egoera-mota bakoitzean, nahiz eta jazarpen-jokabidea oraindik burutu ez den eta, beraz, oraindik kalifikazio hori izan ezin duen.

Jazarpenaren aurreko prebentzio-kulturaren printzipioa da pertsona guztiek lanean bizi dituzten tratu txarren egoerak tratatu eta konpontzeko aukera izan dezaten, eta hori berentzat eta egoera horien eraginean dauden gainerako pertsonentzat arazo bat edo estigma bat ez izatea.

Azken batean, protokoloa arazoak konpontzeko baliatu behar da, eta pertsonen osasunean eta osotasun fisikoan, eta duintasunean eta osotasun moralean kalterik ez eragiteko”.

Hau da, lan-harremanen eremuan funtsezko eskubide horiek urratzen ez direla bermatu behar du.

Nire aldetik, ez dut besterik esateko; zorionak Diskriminazioa eta Jazarpen Moralaren Euskal Behatokiari, egiten duen lanagatik. Izan ziur nire laguntza eta Lan eta Justizia Saila osoaren laguntza izaten jarraituko duzuela.

2017an elkarlanean jardun genuen ere, “Laneko jokabide desegokiak” jardunaldian, eta, 2018an, “Langileen zahartzea” liburuaren edizioan. Biek izan zuten harrera oso ona. Ziur nago hau ere arrakastatsua izango dela.

Eskerrik asko.